



# IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

**Ikastetxearen izena:**  
JUAN ZARAGUETA IPI

**Ikastetxearen kodea:**  
012137

**Data:**  
dd





## 1. SARRERA

### Ikastetxearen testuingurua

Juan Zaragueta ikastetxe publiko integratuak (IPI) 2 urtetik 16 urte bitarteko neska-mutilen garapen osoaren aldeko lanean dihardu. 6000 biztanle inguru dituen Orio izeneko herrian kokatua dago eta derrigorrezko hezkuntza aldetik udalerrian dauden bi eskaintzetatik Sare Publikoko eskaintza da. Udalerrria maila ertainekoa da gizarte eta ekonomia aldetik. Herrian biztanle kopurua handitzen joan da azken urte hauetan; ikasleena mantentzen joan den arren, EAEn bezala haurren jaiotze kopurua jaisten ari da eta.

Gipuzkoako IPI izaera duen ikastetxe gutxietako bat da. 260 ikasle inguru eta 50 bat irakasle (etengabe ikasten ari dena, puntako eta egungo hezkuntza metodoekin batera) dituen ikastetxea da, D eredukoa. Matrikulazioan gora beherak izan dituen ikastetxea izan da, azken urteetan maila bakoitzean lerro bat edo bi daudelarik.

Ia ikasle guztiak 2 urteko gelan hasten dira eta Haur Hezkuntzako 2. zikloa, Lehen Hezkuntza osoa eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza osoa bertan egiten dituzte. Hau amaitutakoan, eskola mapari jarraituz, gehiengoa Zarauzko Lizardi institutura joaten da Batxilergoko ikasketak burutzera. Zentroko Orientatzaileak orientazio pertsonalizatua egiten du ikasle bakoitzaren beharrei erantzun egokia emateko.

Ikasleen emaitzak, barne ebaluazioa, Lizardi Institututik luzatzen diguten informazioa eta ebaluazio diagnostikoko emaitzekin bat datozen edo ez aztertuz, bi urtez behin Hobekuntza plana diseinatzen da. Ikasturtean zehar hobekuntza planaren ebaluazioa egiten da planaren helburuak bete ote diren ikusteko. Berriro ere aurreko gutzia kontuan izanda hurrengo hobekuntza plana diseinatzen da. Ikasle bakoitzaren arrakasta helburu dugunez, hau betetzeko egin beharreko jarduera zerrenda Urteko Planean jasotzen dugu.

Eskola osatzen dugun familia eredu anitz guztiak taldean, eroso sentitzea nahi dugu. Familia hauen parte hartzea modu ezberdinetara ematen da; ospakizunetan parte aktibo direlarik, ikastaroak jasoz, beren hitza aintzat hartzeko foroan bitartez... Aipatzekoa da Ubera Guraso Elkartearekin dagoen lankidetzeta. Bertan eskolako familia asko daude eta eskolako hainbat ekintza eta proiektutarako bere laguntza ematen du. Familiekin elkarlaneko zubiak eraikitzen jarraitzeko lanean dihardugu.

Familiez gain, herriko erakunde eta elkarteekin harremana mantentzen da, hala nola, Orioko udalarekin, Haurreskolarekin, Ikastolarekin, Musika Eskolarekin, AEK-rekin, Esperientzia Eskolarekin, Orioko Ahalduentze Eskolarekin, eguneko zentroarekin, Osasun Zentroarekin...

Bestalde, pedagogia aldetik proiektu ezberdinetan parte hartzen dugu, hala nola patioaren eraldaketa proiektua, Hezkidetzeta proiektua, NOLEGA ahozko adierazpena lantzeko proiektua, IKE (ikasgelaz kanpoko ekintzak) euskararen erabilera sustatzeko, "Bidelaguna" proiektua, Ulibarri programa, ERALDATZEN kontratu programa, Eleaniztasunerantz, STEAM, herrian integratutako eskola helburutzat duen doktore tesia.

Eskualdeko gainontzeko eskola publikoekin ere harremana zaintzen da. Eskualdeko Berritzegunetik aholkularitza jasotzen dugu eta proiektuen jarraipena egiten dugu.

Laburbilduz, hauek dira gure izaera errotzen duten printzipioak:

- ✓ Zaragueta Herri Eskola Orioko **eskola publikoa** da, **anitza eta inklusiboa**. Gure ikastetxea, ideologiari dagokionez, politika eta erlijio alorretan anitza da eta hala izan nahi du. Aniztasunari erantzun egokia eman nahi diogu gizartean dauden mota guztietako arrakalei aurre egin eta Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen gutunak 14. artikuluan dioen bezala: pertsona guziok dugun hezkuntzarako eskubidea bermatu nahi dugu. Beraz, aniztasuna aberastasun gisa dakusagu, eta den-denak seguru sentituko diren espazioak sortzen ditugu. Pertsona kritikoak hezten ditugu, eta mundura irekiak.

**Hezkidetza** ere naturaltasunez bizitzen ahalegintzen da, sexuagatik bereizketarik izan ez dadin, nork bere sexualitatea, eta besteena, onartzeko. Sexu-heziketako tabuak gaingitzea eta hizkuntza ez sexistan hezte dugu helburu.

- ✓ Zaragueta herriarentzako **eskola irekia eta hurbila** da, tratu familiarra eta giro atsegina eskaintzen duena, eta gure geletako ratioei eta **konfidantzako harremani esker**, hezkuntza pertsonalizatua ematen duena. Ondorioz, ikasle bakoitzaren dimentsio afektibo-emozionala, sensoriomotorea, soziala eta kognitiboa kontuan hartuta lan egiten dugu, ingurune zoragarrian kokatuta gaudelarik. Horrenbestez, eta **Orioko Curriculum ardatz**, herriaren historia eta herria bera ezagutzen ditugu, eta eskolako komunitate osoa herriaren parte garrantzitsu dela sentiarazten dugu.
- ✓ **Euskalduna eta hizkuntzaren trataera integratua eta integrala lantzen duena**. 2022-23 ikasturteko datuen arabera gure eskolako familien %31,42 euskaldunak dira, %22,85 elebidunak (eusk/gazt) eta %45,71 erdaldunak (gaztelera, arabe, urdu, ...). Honek eskolan euskararen erabilera sustatzeko eta euskal kultura gerturatzeko beharra agerian uzten du, eta ondorioz **Euskara eta Euskal Herriko balioak transmititzeaz** arduratzen gara, nola gelan hala eguneroko harremanetan.

Gure helburu nagusietako bat bizitzako zeregin askotarikoetan ekiteko ikaslearen komunikazio-kompetentzia garatzea da eta horretarako ezinbestekoa da **hizkuntzen ikuspegi integratzailea** eta horren batera doan curriculum bateratua gauzatzea, **Euskararen ardaztutako eleaniztasuna** garatuz.

## Azpiegiturak

Duela urte batzuetatik hona Zaragueta Eskolak digitalizazioari lotutako proiektu desberdinetan parte hartu dugu, beti ere erabat lerrokatuta Ikastetxeko Hezkuntza Planarekin eta Zuzendaritzako Proiektuekin.

Garbi dugu ikas-irakaskuntzak eta kompetentzia digitalak batera joan behar dutela egungo gizarteari erantzun nahi badiogu. Hori dela eta, Curriculumetik abiatuta ikastetxearen eta profesional ororen Digitalizazio maila eta ikasleen kompetentzia digitala bermatu behar ditugu. Honek etengabeko prozesu baten aurrean jartzen gaituenez, formazio eta hobekuntza planak diseinatzen joan gara. Horretarako Hezkuntza Sailaren eta Ikastetxeko Zuzendaritza Proiektuaren ildoak hartu izan ditugu erreferente.

Azken ikasturteetan egindako digitalizazio lanari esker IKTn heldutasun maila altua duen ikastetxea gara. Ikasturte honetako asmoa berriz, hezkuntzako profesionalen kompetentzia digitala eta curriculum berria uztartzen dituen ikastaro bateratuan A2 maila lortzea da.

Ikastetxeko barne eta kanpo komunikaziorako .eus domeinua erabiltzen dugu, Google tresnen bitartez (posta, egutegiak, drive, Classroom...). Irakasle guztiok *zaragueta.eus* helbidea daukagu eta ikasleei ere LH1. mailatik aurrera euren *zaragueta.eus* helbidea sortzen diegu eta pixkanaka erraminta hauekin trebatzen hasten gara. Irakasle eta ikasleen korreo taldeak ere martxan ditugu. Dena den, ikasturte honetan Office 365 plataforma ezagutarazten ari gara, besteak beste *irakasle.eus* korreorearen erabilera bultzatuz.

Familia eta ikastetxearen arteko harremana Ikasgunea Eusko Jaurlaritzaren plataformaren bitartez ere egiten da. Bertan, ikaslearen informazio akademiko guztia kontsulta daiteke: notetarik hutsegiteetara. Arlo honetan ere aipatzekoa da digitalizaziorantz aurrera pausoak ematen jarraitu dugula ikasturte honetan eta ohar eta notak paperean ematetik pixkanaka-pixkanaka dena digitalki egitera pasatzea dugu helburu (betiere arrakala digitala kontuan hartuz eta ziurtatuz familia guztiengana iristen garela).

Kanpo komunikazioan ere, esfortzu handia egin dugu azken urteetan, web orria goitik behera eguneratuz, ziklo bakoitzeko blogak elikatuz, irratia zuzenean web orriaren bidez emitituz... Facebook, Instagram, Twitter eta TikToka ere martxan jarri ditugu ikasturte honetan, eta maiztasunez elikatzen ditugu. Baliabide hauek eguneratuak izateko lanean jarraituko dugu, eta alderdi pribatua hobetzen saiatuko gara bai ikasleentzat, bai familientzat ere.

Sareari dagokionean, interneterako konexio sinkronoa daukagu 1200MBPS emaria eskaintzen duen sarearekin, gure 20 bat wifi puntuei esker, Interneterako konexio fidagarri eta segurua bermatzen baitigu. Telefonía berriz, IP Ahots bitartez dugu.

Tresneriari dagokionez, pixkanaka ordenagailu, armairu, minieramangarri eta arbel digitalez hornitzen joan gara gure eskola eta gaur egun azpiegitura zabala dugula esan dezakegu. Izan ere, ikasgela eta hezkuntza gune guztiak dituzte proiektoreak, arbel digitalak eta bestelako ikus-entzunezko baliabideak. Hala, gure ikastetxea hezkuntza ingurune teknologikoa dela esan daiteke.

LH1-tik aurrera, gela bakoitzean ordenagailu-armairuak daude, ikasle bakoitzak eramangarri bat eskuragai izan dezan. DBHn ikasle bakoitzak Hezkuntza Sailak enpresa bati 4 urtetarako renting-ean erositako ordenagailu bat dauka eta familiak baimena emanaz gero (baldintza batzuk onartuz), ikasle hauek ordenagailua etxera eramateko aukera dute.

Eskolan izendatuta ditugun IKT arduradunak arduratzen dira baliabideen erregistro, kudeaketa eta antolaketaz, eta mantenua berriz CAU-koekin bideratzen dugu.

Aurrera begira, gure egunerokotasunean orain arteko baliabideak erabiltzen jarraituko dugun arren (Hezkuntzaren aplikazioak, Moodle, Googlen lan-eremuko tresnak...), aurrerapausoak ere ematen joan nahiko genuke. Era berean, IPD honetan gure egoera aztertu ondoren, helburu jakin batzuk markatuko ditugu. Hurrengo ikasturterako ekipo-inbertsioen beharrak ere aztertu eta gauzatuko ditugu, beti ere, aurrekontuaz gain, *Berriztu* plana kontuan harturik.

## Proiektuaren justifikazioa

2022-2023 ikasturteko Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasturte hasierako ebazpenek diote Ikastetxeek Proiektu Digitala (IPD) egingo dutela 2023ko ekainaren 16rako eta Hezigunera igoko dutela. Eskaera hauen ondorioz, Zaragueta 2022-2023 ikasturtean bere IPDa idatziko du. Gainera, ebazpenek eskatzen duten bezala, proiektua IHParekin eta ICParekin lerrokatuta joango da.

IPDa egiteko Digitalizazio Batzorde bat osatu da, IPDaren egite prozesua dinamizatzeko eta koordinatzeko eta eguneratua mantentzeko. BeA-tar bat izango da batzorde burua eta hainbat tresna eta laguntza izango ditugu eskura: gida, on-line laguntza eta Mentoreen Sarearen aholkularitza.

Plan honen helburua Zaraguetan teknologia digitalak irakaskuntza-ikaskuntza eta ebaluazio-prozesuetan txertatzea da. Teknologia digitalak gure eguneroko bizitzan daude, eta gure ikaskuntzaren funtsezko parte izan beharko lukete. Modu honetan, gure ikasleek beren gaitasun digitala garatuko dute gizarte digitalean bizitzeko eta etorkizuneko lanbideetan eskatuko zaizkien gaitasun digitalak izateko.

Teknologia digitalek eragina dute hezkuntza-sistemaren jarduera guztietan, eta premia eta aukera berriak sortzen dituzte. Horrek guztiak erronkak planteatzen ditu, eta horiei ere erantzun behar zaie. Erronka nagusiak ondorengoak dira<sup>1</sup>:

- 1.- Irakasleei laguntzea gaikuntza digital integrala lantzen: irakasleen kompetentzia teknopedagogikoak.
- 2.- Kompetentzia digitala erabat eskuratzea: ikasle digitalki gaituak.
- 3.- Lidergo digital sendoa garatuko duen ikastetxe aurreratua sortzea: lidergo digitala hezkuntza-komunitateentzat.
- 4.- Azpiegitura eta euskarri digitalak sendotzea: erronka digitalekin lerrokatutako azpiegituren aldeko apustua.
- 5.- Esperientzia aurreratuak sartzera eraldaketa digitala gauzatzeko: hezkuntza-arrakasta lortzeko irakasteko eta ikasteko modu berriak.

Guzti honetarako nora goazen kontuan izan behar dugu eta 3 arlo eta erreferentzia markoak kontuan izan:

- 1.- DigComp ikasleak<sup>2</sup>.
- 2.- DigCompEdu irakasleak<sup>3</sup>.
- 3.- DigCompOrg ikastetxeak<sup>4</sup>.

Digitalizazio plan hau 2030erako Garapen Jasangarriaren Helburuekin lerrokatuta egongo da.

<sup>1</sup> [https://www.euskadi.eus/contenidos/recurso\\_tecnico/ikuskaritzaren\\_baliabideak/eu\\_balia/adjuntos/200522\\_Plan\\_Trasformacion\\_Digital\\_Sistema\\_Educativo\\_Euskadi\\_EUS.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/recurso_tecnico/ikuskaritzaren_baliabideak/eu_balia/adjuntos/200522_Plan_Trasformacion_Digital_Sistema_Educativo_Euskadi_EUS.pdf)

<sup>2</sup> [https://ikanos.eus/wp-content/uploads/2022/12/DigComp2.2.eus\\_.pdf](https://ikanos.eus/wp-content/uploads/2022/12/DigComp2.2.eus_.pdf)

<sup>3</sup> [https://digigunea.euskadi.eus/documents/29158716/29203644/DigCompEdu\\_eus.pdf/f96b98eb-dda7-5914-6c20-020f972982fd](https://digigunea.euskadi.eus/documents/29158716/29203644/DigCompEdu_eus.pdf/f96b98eb-dda7-5914-6c20-020f972982fd)

<sup>4</sup> [https://digigunea.euskadi.eus/documents/29158716/29203644/DigCompOrg\\_markoa\\_eus.pdf/ec46018e-afaa-5873-80ec-83417f9f041b](https://digigunea.euskadi.eus/documents/29158716/29203644/DigCompOrg_markoa_eus.pdf/ec46018e-afaa-5873-80ec-83417f9f041b)

## Elaborazio prozesua eta lan-taldea

Ikastetxeko Proiektu Digitalaren diseinuak ideia nagusiak jaso, lehenetsunak zehaztu, eta planifikazio mailak (programak, proiektuak, ekintzak) ezarri behar ditu. Izan ere, IPDak:

- Gaur egun zentroa non dagoen ulertzen laguntzen du (ikastetxearen egoeraren analisia: autoebaluazioa eta hausnarketa).
- Ikastetxeak nora iritsi nahi duen zehazten du (helburuak).
- Ikastetxea egoera batetik bestera eramango duen bidea marrazten du (helburuak erdiesteko ekintzak).

Aurten, 2022-2023 ikasturtean, ikastetxe guztiek Ikastetxearen Proiektu Digitala egitea eskatzen du Hezkuntzak eta hau burutzeko ezinbestekotzat jotzen du Digitalizazio Batzordea eratzea. Zaraguetan, Ikasketa-buruak eta bi BeAtarrek osatzen dute aipatutako batzordea eta prozesu honetan eragile izango da.

Horiek markatuko dute zentroaren lan plana hobekuntza prozesuan zehar. Halaber, gakoa da zuzendaritza taldearen partehartzea Proiektu Digitalaren diseinu eta inplementazio prozesuan: batetik, aportatu dezakeen ikuspegi globalagatik, eta bestetik baliabideak esleitzeko eta ardurak banatzeko duen eskumenengatik.

Lehenetsunak zehazterakoan, DigComEdu<sup>1</sup> markoaren sei arloak kontuan hartu dira. Sei arlo horien planifikazioa eta beharrak proposatzeko garaian, SELFIE galdetegien erantzunetatik ondorioztatu duguna kontutan hartu behar dugu:

- **Irakasleen konpromiso profesionalari** dagokionez, etengabeko formaziora bideratuko ditugu. Horretan laguntzek, ikasturtean zehar barne formazio ezberdinak egiten jarraituko dugu.
- **Baliabide digitalak.** Gure ikastetxeak digitalki modu egokian funtzionatzeko beharrezkoak diren baliabide digital guztiak irakasle eta ikasleen eskura jartzen saiatuko gara.
- **Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua eta ebaluazioan** teknologia digitala gero eta gehiago txertatzea izango dugu helburu. Modu desberdinetan aritzen gara elkarrekintzan ikasleekin gela barnean eta kanpoan baliabide digitalak erabiliz. Proiektu honekin tresna digitalen bidez feedback zuzenagoak, ebaluazio errubrikekin ebaluaketa esanguratsuagoak eta parte hartzaileagoak ahalbidetzen saiatuko gara.
- **Ikasleak ahalduntzea eta beraien konpetentzia digitala erraztea.** Arlo honetan irisgarritasuna, aniztasuna, inklusioa, ongizatea, segurtasuna bermatu behar diegu ikasle guztiei, parte hartze aktiboa, lankidetzatza, sormena... bultzatuz.

<sup>1</sup>[https://digigunea.euskadi.eus/documents/29158716/29203644/DigCompEdu\\_eus.pdf/f96b98eb-dda7-5914-6c20-020f972982fd](https://digigunea.euskadi.eus/documents/29158716/29203644/DigCompEdu_eus.pdf/f96b98eb-dda7-5914-6c20-020f972982fd)

## Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena

Ikastetxeko Proiektu Digitala ikastetxeko testuinguru zabal batean kokatu behar da; testuinguru hori beste oinarrizko zenbait dokumentutan zehazten da, besteak beste Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan. Dokumentu horiek, halaber, bat etorri behar dira eta guztiz osagarriak izan.

Proiektu Digital honen baitan, ikastetxeetako ikaskuntza-irakaskuntzako eta ebaluazioko prozesuetan teknologia digitala sustatuko da. Hainbat ekintza bultzatuko dira honako arloetara bideratuta: material berriak sortzera, hezkuntza-komunitateko pertsona guztiak digitalki gaitzera, azpiegitura berriak garatzera eta ikaskuntzaren eraldaketa digitalerako praktika aurreratuak hartzera.

Bestalde, Ikastetxeko Proiektu Digitala ikastetxearen dokumentu estrategikoetan jaso behar da, hau da, Zaraguetako Zuzendaritza Proiektuan eta Hezkuntza Proiektuan. Bi dokumentu horietan jasotzen diren helburuak betetzeko estrategia guztien artean nahitaezkoa da Proiektu hau. Beti ere, gaur egungo gizarteak daraman bilakaerara egokituz doan Proiektua Digitala izango dela nabarmenduz.

Digitalizazio Planak, era batean edo bestean, Zuzendaritza Proiektu eta Hezkuntza Proiektu eta Ikastetxeko Urteko Planeko helburu hauengan izango luke eragina:

### 1.- Justizia eta zaintzako etikaren hezkuntzan hezteak.

Ikasle guztien eta bakoitzaren izaera eta egoera kontuan izanda, heziketa integrala guztiei eskaintzea, pertsona eta hiritar bezala garatu daitezkeen, gizartean dituzten eta izango dituzten erronkei zintzo eta modurik eraginkorrenean erantzuteko gai izan daitezkeen.

Ondorioz, gure eskolaren jomuga garrantzitsu bat izango da etorkizuneko premien erantzukizuna gure gain hartu eta elkar zaintzeko gai izango diren herritarrek hezteak, gizartean modu kritikoa eta arduratsuan parte hartu ahal izateko gaituz.

Ikasleak gure jardura profesionalaren muina eta gune izateaz gain, bere ikasketa-prozesuaren protagonistak izango dira.

### 2.- Ikasleak Euskara eta kultur transmisioa ardatz direlarik hezteak Orioko errealitateak abiatuta munduko errealitateak prest izateko.

Lidergo partekatuarekin jarraituz, hezkuntza komunitate osoaren partaidetza bermatzea ikastetxearen helburu guztiak bete daitezkeen, Orioko herriarekin, herriko beste ikastetxearekin, eta baita gainerako gizarte eragileekin ere, elkarlanean eta lankidetzan jarraituz.

### 3.- Ikastetxeko curriculum proiektua berritzen joateko bidea hastea.

Arlo pedagogikoan, curriculum proiektua berritzen joatea eta antolakuntzan eta kudeaketan etengabeko hobekuntza sistemak ezartzea eta daudenak indartzea, gero eta eraginkorragoak izan gaituzten.

XXI. menderako hezkuntzaren paradigma-aldaketak, informazioaren erabilera kritikoa egiten jakitea ez ezik, ezagutza bera eraikitzen jakitea ere eskatzen digu. Horrek aldaketa sakonak dakartza, eta ikasleek eskuratu beharreko ezagutza eta gaitasun berriak ere bai. Horregatik, eskola zereginaren ohiko betebeharrak bihurtzen da irakasteko modu berriak eskuratzeko eta eskolan elkar eragiteko sareak osatzea, esperientzien praktikak eta ikerketak sustatzea.

### 4.- STEAM eta IKT-ei lotutako gaitasunak lortzeko Hezkuntza komunitatea prestatu eta estrategiak hedatzea eta Zuzendaritzaren lidergoak doitzeak

Hezkuntza Proiektuaren helburuak eta ildo estrategikoak garatzeko, eta zuzendaritzaren lidergoak bermatuz, Hezkuntza komunitate osoaren formazioa sustatu eta indartzea, bereziki profesionalen arteko elkarlana eta lan giroa berma ditzakeen eraginkortasuna bultzatuz.

Orain arte adierazitako guztia aintzakotzat hartuz, Ikastetxeko Proiektu Digital egoki bat ezinbestekoa suertatzen da.



## 2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

### Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.

Juan Zaragueta IPI ikastetxearen egoeraren analisia egiteko *Selfie for Schools* tresna erabili dugu. Zehazki *Selfie 2022-2023* txostenean oinarrituko gara analisi hau aurrera eramateko.

SELFIEan bildutako informazioak ikastetxeko argazkia eguneratuta ematen digu, irakaskuntza-ikaskuntzarako teknologia digitalak erabiltzeko estrategiak eta praktikak erakutsiz. Baliabide ona da eskola-komunitate osoaren barruan elkarriketa sortzeko ere.

Egoeraren azterketa hau egin ondoren datuak irakurri ditugu eta hausnarketa bat eraman dugu aurrera. Txosten hau oinarri hartuta indarguneak eta ahuleziak identifikatuko ditugu, haiei buruz eztabaidatuko dugu, eta ikaskuntzarako teknologia digitalak erabiltzeko plan bat sortuko dugu, Zaraguetako IPDa. Txosten hau aztertzerakoan kontuan hartu ditugunak ondorengoak dira:

- Emaidza baxuak
- Emaidza altuak
- Emaidza-desberdintasun esanguratsuak erabiltzaile-taldeen artean

Kontutan hartu behar dugu, alde batetik LHko emaitzak ditugula eta bestetik DBHkoak, beraz azterketa bereizita izango da.

Aurrekoa kontuan izanik 2022-2023ko SELFIEen oinarrituta ondorengoak aztertuko ditugu:

### LH-KO EMAITZAK

#### - Emaidza baxuak:

A. Lidergoa:

A4: Irakaskuntza digitala aztertzeko denbora 2,4: Zuzendaritza: 2; Irakasleak: 2,7.

B. Lankidetzeta eta sareak:

B4: Ikaskuntza mistorako sinergiak 2,9: Zuzendaritza: 2,5.

C. Azpiegiturak eta ekipoak:

C13: Bakoitzaren ekipoa ekartzea 1,1: Zuzendaritza: 1; Irakasleak: 1,1

F. Pedagogia. Ikasgelan ezartzea:

F6: Disziplinar-teko proiektuak 2,4: Zuzendaritza: 2,5; Irakasleak: 2,3

G. Ebaluazio praktikak:

G1: Gaitasunak ebaluatzea 2,9: Zuzendaritza: 3; Irakasleak: 2,8

G3: Feedback egokia 2,5: Zuzendaritza: 2,5; Irakasleak: 2,6

G5: Ikaskuntzari buruzko autoikaskuntza 2,5: Zuzendaritza: 2,5; Irakasleak: 2,4

G6: Ikasleei bere lanei buruzko iruzkinak 2,6: Zuzendaritza: 3; Irakasleak: 2,2

G7: Ebaluazio digitala 2,5: Zuzendaritza: 2,5; Irakasleak: 2,6

G8: Ikaskuntza-dokumentazioa 2,9: Zuzendaritza: 3,5; Irakasleak: 2,2



G10: Ikastetxetik kanpo garatutako gaitasunen ebaluazioa 2,8: Zuzendaritza:3,5;  
Irakasleak: 2,1

H. Ikasleriaren kompetentzia digitalak:

H11: Programatzen edo kodifikatzen ikastea 2,8: Irakasleak: 2,3

H13: Arazo teknikoak ebatzi 2,9: Irakasleak: 2,7

- **Emaizta altuak:**

C. Azpiegiturak eta ekipoak:

C2: Irakaskuntzarako gailu digitalak 4,6 : Zuzendaritza: 5; Irakasleak: 4,2

C3: Interneterako sarbidea 4,3 : Zuzendaritza: 4,5, Irakasleak: 4,2; Ikasleak: 4,2

C5: Laguntza teknikoa 4,2: : Zuzendaritza: 4,5, Irakasleak: 3,9; Ikasleak: 4,1

C8: Ikaskuntzarako gailu digitalak 4,2: : Zuzendaritza: 4,5; Irakasleak: 4,1, Ikasleak: 4,1

C10: Ikasleentzako gailuak 4,2: : Zuzendaritza: 4,5; Irakasleak: 3,5

E. Pedagogia: Laguntzak eta baliabideak:

E1: Lineako hezkuntza-baliabideak 4,3 : Zuzendaritza: 4; Irakasleak: 4,6

E4: Hezkuntza-komunitatearekin komunikazioa 4,5: Zuzendaritza: 4,5 ; Irakasleak: 4,4

- **Emaizta-desberdintasun esanguratsuak erabiltzaile-taldeetan artean:**

A. Lidergoa:

A5: Egile-eskubideari eta erabilera-lizentziei buruzko arauak 3: Zuzendaritza: 2,5;  
Irakasleak: 3,5

G. Ebaluazio praktikak:

G8: Ikaskuntzaren dokumentazioa 2,9: Zuzendaritza: 3,5; Irakasleak: 2,2

G9: Datuak erabiltzea ikaskuntza hobetzeko 3,5: Zuzendaritza: 4; Irakasleak: 2,9

G10: Ikastetxetik kanpo garatutako gaitasunen ebaluazioa 2,8: Zuzendaritza: 3,5;  
Irakasleak: 2,1

**DBH-KO EMAITZAK**

- **Emaizta baxuak:**

A. Lidergoa:

A1: Estrategia Digitala 2,7: Zuzendaritza: 3; Irakasleak: 2,4.

A4: Irakaskuntza digitala aztertzeke denbora 2,3: Zuzendaritza: 2,5 ; Irakasleak: 2,1.

A5: Egile-eskubideei eta erabilera-lizentziei buruzko arauak 2,5: Zuzendaritza: 2 ;  
Irakasleak: 3,1.

B. Lankidetzak eta sareak:

B1: Prozesuaren ebaluazioa 2,5: Zuzendaritza: 3; Irakasleak: 2,1

B2: Teknologiaren erabilerari buruzko eztabaida 2,7: Zuzendaritza: 2,5 ; Irakasleak: 2,8;  
Ikasleak: 2,9.

B4: Ikaskuntza mistorako sinergiak 2,4 : Zuzendaritza: 2 ; Irakasleak: 2,7.

C. Azpiegiturak eta ekipoak:

C7: Datu-babesa 2,2: Zuzendaritza: 1,5; Irakasleak: 2,9.

C12: Eten digitala: erronkei aurre egiteko laguntza.2,8: Zuzendaritza: 3; Irakasleak: 2,6.

C13: Bakoitzaren ekipoa ekartzea 2,1: Zuzendaritza: 3; Irakasleak: 1,2; Ikasleak:2.

C15: Laguntza-teknologiak 2,6: Zuzendaritza: 2,5; Irakasleak: 2,7.

D. Etengabeko garapen profesionala.

D1: Etengabeko garapen profesionalaren beharra 2,4 : Zuzendaritza: 2,5; Irakasleak: 2,3.

D2: Etengabeko garapen profesionalean parte-hartzea 2,7: Zuzendaritza: 2,5; Irakasleak: 2,9.

D3: Esperientziak trukatzeta 1,9: Zuzendaritza: 1,5; Irakasleak: 2;

F. Pedagogia. Ikasgelan ezartzea:

F1: Ikasleen beharretara egokitzea 2,8: Zuzendaritza: 2; Irakasleak: 3,3; Ikasleak: 3,2.

F6: Disziplinarteko proiektuak 2,7: Zuzendaritza: 2,5, Irakasleak: 2,4; Ikasleak: 3,3.

G. Ebaluazio praktikak:

G1: Gaitasunak ebaluatzea 2,7: Zuzendaritza: 2,5; Irakasleak: 2,9

G3: Feedback egokia 2,7: Zuzendaritza: 2,5; Irakasleak: 2,6; Ikasleak:2,9

G5: Ikaskuntzari buruzko autoikaskuntza 2,3: Zuzendaritza: 2; Irakasleak: 2,2; Ikasleak:2,7

G6: Ikasleei bere lanei buruzko iruzkinak 2,5: Zuzendaritza: 2,5; Irakasleak: 2,2; Ikasleak:2,7

G8: Ikaskuntza-dokumentazioa 2,7: Zuzendaritza: 2,5; Irakasleak: 2,6; Ikasleak:3

G10: Ikastetxetik kanpo garatutako gaitasunen ebaluazioa 2,3: Zuzendaritza:2; Irakasleak: 2,3; Ikasleak:2,7

H. Ikasleriaren kompetentzia digitalak:

H6: Besteen lanari merezimendua ematea 2,7: Zuzendaritza: 2; Irakasleak: 2,9; Ikasleak:3,2

H7: Eduki digitalak sortzea 2,5: Zuzendaritza: 2,5; Irakasleak: 2,9; Ikasleak:3,4

H11: Programatzen edo kodifikatzen ikastea 2,4: Zuzendaritza: 2; Irakasleak: 2,5; Ikasleak:2,7

H13: Arazo teknikoak ebatzi 2,4: Zuzendaritza: 2; Irakasleak: 2,4; Ikasleak:2,7

- **-Emaitza altuak:**

C. Azpiegiturak eta ekipoak:

C2: Irakaskuntzarako gailu digitalak 4,2 : Zuzendaritza: 4,5; Irakasleak: 3,9

C8: Ikaskuntzarako gailu digitalak 4,4: : Zuzendaritza: 5; Irakasleak: 3,9; Ikasleak: 4,3

C10: Ikasleentzako gailuak 4: : Zuzendaritza: 5; Irakasleak: 3,7; Ikasleak: 3,3

E. Pedagogia: Laguntzak eta baliabideak:

E4: Hezkuntza-komunitatearekin komunikazioa 4: Zuzendaritza: 4,5; Irakasleak: 3,5

- **Emaiza-desberdintasun esanguratsuak erabiltzaile-taldeetan:**

A. Lidergoa:

A5: Egile-eskubideari eta erabilera-lizentziei buruzko arauak 2,5: Zuzendaritza: 2;  
Irakasleak: 3,1

C. Azpiegiturak eta ekipoak:

C7: Datu-babesa 2,2: Zuzendaritza: 1,5; Irakasleak: 2,9.

C8: Ikaskuntzarako gailu digitalak 4,4: : Zuzendaritza: 5; Irakasleak: 3,9, Ikasleak: 4,3

C10: Ikasleentzako gailuak 4: : Zuzendaritza: 5; Irakasleak: 3,7; Ikasleak: 3,3

C13: Bakoitzaren ekipoa ekartzea 2,1: Zuzendaritza: 3; Irakasleak: 1,2; Ikasleak: 2.

E. Pedagogia: Laguntzak eta baliabideak:

E2: Baliabide digitalak sortzea 3: Zuzendaritza: 2,5; Irakasleak: 3,6

F. Pedagogia. Ikasgelan ezartzea:

F1: Ikasleen beharretara egokitzea 2,8: Zuzendaritza: 2; Irakasleak: 3,3; Ikasleak: 3,2.

H. Ikasleriaren konpetentzia digitalak:

H3: Jokabide arduratsua 3,1: Zuzendaritza: 2,5; Irakasleak: 3; Ikasleak: 3,8

H6: Besteen lanari merezimendua ematea 2,7: Zuzendaritza: 2; Irakasleak: 2,9;  
Ikasleak: 3,2

H10: Hainbat gaitarako trebetasun digitalak 3,5: Zuzendaritza: 4; Irakasleak: 2,7;  
Ikasleak: 3,8

**AMIA analisia****Faktore negatiboak****Ahuleziak (barne-faktoreak)**

- Irakaskuntza digitala aztertzeko denbora.
- Ikaskuntza mistorako sinergiak.
- Bakoitzaren ekipoa ekartzea.
- Diziplinarteko proiektuak.
- Ebaluazio praktikak:
  - Gaitasunak ebaluatzea.
  - Feedback egokia.
  - Ikaskuntzari buruzko autoikaskuntza.
  - Ikasleei bere lanei buruzko iruzkinak.
  - Ikaskuntza-dokumentazioa.
  - Ikastetxetik kanpo garatutako gaitasunen ebaluazioa.
  - Programatzen edo kodifikatzen ikastea.

**Mehatxuak (kanpo-faktoreak)**

- Arazo teknikoak ebatzi.

**Faktore positiboak****Indarguneak (barne-faktoreak)**

- Irakaskuntzarako gailu digitalak.
- Hezkuntza-komunitatearekin komunikazioa.

**Aukerak (kanpo-faktoreak)****Autoebaluazioaren ondorioak**

- **Indarguneak** optimizatu **aukerak** areagotzeko
  - Ikasleek gailu digitalak eskura izaten jarraitzeak irakaskuntza prozedura berriak ahalbideratuko ditu.
  - Hezkuntza-komunitatearekin komunikatzeko teknologia digitalak erabiltzen jarraitzeak, gure arteko elkarlana erraztuko du.
- **Ahuleziei** aurre egin **aukerak** aprobetxatzeko
  - Digitalizazio planaren ezarpen egokiak urteko ikas-irakaskuntza digitalaren prestakuntza ahalbideratuko du.
- **Indarguneak** optimizatu **mehatxuak** indargabetzeko
  - Azpiegitura eta ekipamendu egokia, fidagarria eta segurua mantentzea, kalitatezko ikaskuntza/irakaskuntza ahalbideratzeko.
  - Hezkuntza komunitatearen arteko komunikazioa bermatzea, lankidetzan jarraitzeko.
- **Ahuleziei** eta **mehatxuei** aurre egin
  - Hurrengo ikasturteetan teknologia digitalak erabiliz, errealitatean oinarritutako diziplinarteko proiektuak diseinatu eta egin, ikaskuntza prozesua eraginkortasunez hobetzeko.
  - Ikasleak gaitasunetan oinarritutako ebaluazio praktika ezberdinen erabilpenean (autoebaluazioa, koebaluazioa...) ahalduntzea.



### 3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

#### LG Lidergoa eta gobernantza

##### Helburua

Ikastetxeko Plan estrategikoan eta oinarrizko dokumentazioan aro digitaleko ikaskuntzan jasotzea

Deskriptorea	Epea
LG 1.3 Plan estrategikoan jasota dago aro digitaleko ikaskuntza	2024/06/28

Adierazlea	Mota	Helmuga
LG 1.3 A1 Ikastetxeak bere oinarrizko dokumentazioan (Urteko Plana, IHP, ...) sartzen ditu irakasle-taldeak eta eskola-kontseiluak onartutako estrategia digitalaren ildo nagusiak	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Dokumentu estrategikoak eguneratu eta egungo beharrei egokitu	Hezkuntza Proiektua, aurreko ikasturteko Urteko Plana eta memoria, Plan Estrategikoa, AJA Barne Araudia	Zuzendaritza	2024/06/28	Prozesuan (%40-59)
Digitalizazio Batzordea eratu	Ikasturte hasierako antolaketa	Zuzendaria, Ikasketa Buruak	2022/09/27	Egina

#### II Irakaskuntza eta ikaskuntza

##### Helburua

Egutegi bat finkatzea IIBearen erabilera landu eta irakasleak aldaketarekin bat eginda jardun dezaten.

Deskriptorea	Epea
II 1.1 Pertsonala eta ikasleak gai dira arlo digitalean	2024/06/28

Adierazlea	Mota	Helmuga
II 1.1 A2 Ikastetxeak hautatu / egokitu / garatu du programazioen jarraipena eta ikasleen ebaluazioa egiteko erabiliko den irakaslearen koaderno digitala.	Bai/Ez	Bai
II 1.1 A4 Egutegian formakuntza saioak ere finkatuta daude.	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Programazioen doikuntza	Programazioak, Curriculum Berria	Ikasketa Buruak, Mintegi Buruak, irakasleak	2024/06/28	Hasita (%1-19)
Egutegian formakuntza saioak finkatu	Aurreko ikasturteko eskaerak (Mintegiak eta irakasleak), Selfie for schools, Selfie for Teachers, Ikasturte Hasierako Ebazpena eta Urteko Plana	Zuzendaritza, Mintegi Buruak, Batzorde Pedagogikoa	2023/10/31	Detektatua

**GP Garapen profesionala****Helburua**

Ikastetxeak prestakuntza saioak antolatzea irakasleei tresna digitalak eta web orri interesgarriak erakusteko.

Deskriptorea	Epea
GP 1.3 EGPa lerrokaturik dago banakako eta antolaketako premiekin	2024/12/20

Adierazlea	Mota	Helmuga
GP 1.3 A3 Ikastetxeak prestakuntza- edo lan-saioak antolatzea, baliabide digitalak sortzeko eta irakaskuntza-prozesuan integratzeko, irakasle-taldeak antzemandako premien arabera.	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Egutegian formakuntza saioak finkatu	Aurreko ikasturteko eskaerak (Mintegiak eta irakasleak), Selfie for Schools, Ikasturte Hasierako Ebazpena eta Urteko Plana	Batzorde Pedagogikoa	2023/10/31	Detektatua
Hezkuntzak eta beste erakundeek eskaintzen duten formazioa irakasleen eskura jarri	Formazio deialdiak	Zuzendaritza, Hezkuntza Saila, Udala, Foru Aldundia...	2024/12/20	Detektatua

**EJ Ebaluazio jardunbideak****Helburua**

Ebaluazio formatiboaren ibilbidean sendotuz joatea.

Deskriptorea	Epea
EJ 1.1 Ebaluazio formatiboaren helmena hedatzen da	2024/06/28

Adierazlea	Mota	Helmuga
EJ 1.1 A1 Ikasgaien % 50 tan errubrikak erabiltzen dira irakasteko eta ikasteko prozesuetan, ikasleek beren ikaskuntza-prozesuari buruzko autoerreflexioa egin dezaten.	Ehunekotan	%50

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Programazioen doikuntza	Programazioak, Curriculum Berria	Ikasketa Buruak, Batzorde Pedagogikoa	2024/06/28	Hasita (%1-19)
Barne eta kanpo emaitzak aztertu eta hobekuntza plana egin	Koaderno Digitala, Ebaluazio Diagnostikoa, Hezkuntzak bidaltzen dituen eskola emaitzak, Lizardik bidalitako emaitzak, barne emaitzak	Ikasketa Buruak, Batzorde Pedagogikoa, ikasgaietako irakasleak	2023/09/31	Detektatua

**EC Edukiak eta curriculuma****Helburua**

LOMLOE aintzat hartuta ikastetxeko erabaki kurrikularrak hartzen joatea hezkuntza proiektua berritzeko.

Deskriptorea	Epea
EC 2.4 Ikaskuntza egiazko testuinguruetan sustatzen da	2024/06/28

Adierazlea	Mota	Helmuga
EC 2.4 A1 Ikastetxearen curriculum-proiektuak irteera-profila, ikasleen gaitasun digitalaren garapenaren ibilbidea eta hezkuntza-maila bakoitzerako gaitasun digitala ebaluatzeko irizpideak jasotzen ditu.	Bai / Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ikasleen gaitasun digitalaren garapen ibilbidea klaustroan landu eta adostu	Mentorearen formazio sitiesa, Hezkuntza Saileko dokumentuak, Curriculum berria	Zuzendaritza, Digitalizazio Batzordea	2024/06/28	Detektatua
Programazioetan hezkuntza-maila bakoitzerako gaitasun digitala ebaluatzeko irizpideak jaso	Mentorearen formazio sitiesa, Hezkuntza Saileko dokumentuak, Curriculum berria	Zuzendaritza, Digitalizazio Batzordea	2024/06/28	Detektatua

**EN Elkarlana eta networking-a****Helburua**

Ikastetxeko ikaskuntza-ingurunea berrantolatzea egungo behar berrietara egokituz.

Deskriptorea	Epea
EN 1.1 Ohikoa da pertsonalak sarean lankidetzan jardutea ezagutza adituak bateratzeko eta edukiak partekatzeke	2024/06/28

Adierazlea	Mota	Helmuga
EN 1.1 A1 Ikastetxeak erakundearen ikaskuntza-ingurune bat garatu du, beharrezko informazioa, sartu beharreko informazio-iturriak eta informazioa kudeatzeko arduraduna zehaztuz.	Bai / Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Eskolako web-orria eta irakasleentzako sitiesa sortu eta eguneratu	LOMBOK komunikazio enpresa	Digitalizazio Batzordea, Komunikazio Batzordea	2024/06/28	Detektatua

**AZ Azpiegiturak****Helburua**

Ikastetxeko baliabide digitalen gida erabilgarria sortzea.

<b>Deskriptorea</b>	<b>Epea</b>
AZ 1.1 Ikaskuntza-ingurune fisikoek optimizatu egiten dituzte aro digitaleko ikaskuntzaren aukerak	2024/06/28

<b>Adierazlea</b>	<b>Mota</b>	<b>Helmuga</b>
AZ 1.1 A1 Ikastetxeak dokumentu bat edo atal bat du ikastetxeko espazioak, ekipamendua eta baliabide digitalak kudeatzeko eta mantentzeko gida baten barruan, eta bertan jasotzen da gorabeherak eta matxurak komunikatzeko eta kudeatzeko protokoloa.	Bai/Ez	Bai

<b>Ekintzak</b>	<b>Baliabideak</b>	<b>Arduradunak</b>	<b>Epea</b>	<b>Egoera</b>
Ikastetxeko ekipamendu eta baliabide digitalak kudeatzeko eta mantentzeko gida sortu	Zaraguetako irakasleentzako plataforma birtuala	IKT arduradunak, Zuzendaria	2024/06/28	Detektatua
Ikastetxeko ekipamendu eta baliabide digitalen gorabehera eta matxurak komunikatzeko eta kudeatzeko formularioa sortu	Google Forms	IKT arduradunak, Zuzendaria	2023/10/30	Detektatua





## 4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

	Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamenak
LG	Ikastetxeko Plan estrategikoan eta oinarrizko dokumentazioan aro digitaleko ikaskuntzan jasotzea	24/06/28	- Dokumentu estrategikoak eguneratu eta egungo beharrei egokitu dira.	Zuzendaria	Altua	Notionekin segi
II	Egutegi bat finkatzea II Bearen erabilera landu eta irakasleek aldaketarekin bat eginda jardun dezaten.	24/06/28	- Egutegian formakuntza saioak finkatu dira. - Programazioen doikuntza egin da	Zuzendaria	Altua	Doikuntzak egingo dira
GP	Ikastetxeak prestakuntza saioak antolatzea irakasleei tresna digitalak eta web orri interesgarriak erakusteko.	24/12/20	- Egutegian formakuntza saioak finkatu dira - Hezkuntzak eta beste erakundeek eskaintzen duten formazioa irakasleen eskura jarri da.	Zuzendaria	Altua	
EJ	Ebaluazio formatiboaren ibibidean sendotuz joatea.	24/06/28	- Programazioen doikuntza egin da - Barne eta kanpo emaitzak aztertu ondoren hobekuntza plana egin da.	Ikasketa Buruak	Altua	Ebidentziak jasotzeko tresnak sendotu
EC	LOMLOE aintzat hartuta ikastetxeko erabaki curricularrak hartzen joatea hezkuntza proiektua berritzeko.	24/06/28	- Ikasleen gaitasun digitalaren garapen ibilbidea klaustroan landu eta adostu da - Programazioetan hezkuntza-maila bakoitzerako gaitasun digitala ebaluatzeko irizpideak jaso dira	Ikasketa Buruak	Bajua	Hezkuntza proiektua idazten hastea
EN	Ikastetxeko ikaskuntza-ingurunea berrantolatzea egungo behar berrietara egokituz.	24/06/28	- Eskolako web-orria eta irakasleentzako sitesa sortu eta eguneratu dira.	Zuzendaria	Altua	
AZ	Ikastetxeko baliabide digitalen gida erabilgarria sortzea.	24/06/28	- Ikastetxeko ekipamendu eta baliabide digitalak kudeatzeko eta mantentzeko gida sortu da. - Ikastetxeko ekipamendu eta baliabide digitalen gorabehera eta matxurak komunikatzeko eta kudeatzeko formularioa sortu da	Zuzendaria	Ertaina	Gidali bidali eta landu ikasturte hasieran

